*Euskararen Gaitasun Agiria*

# *IDAZLANA 07-10-06*

1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
1. *Idazlanak <u>gutxienez 300 hitz</u> izan behar ditu.*
2. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*

   *a) gaiaren eraketa eta garapena;*

   *b)hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;*

   *c)zuzentasuna.*
4. *Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzek ... Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak, iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.*
6. *Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...*

## GAIA EUROPAR BATASUNA

**1957-2007: Europar Batasunak 50 urte**

27 kide
487 milioi biztanle
23 hizkuntza ofizial



Iturria: e.c. audiovisual services



Iturria: www.europarl.europe.eu

ERASMUS PROGRAMA, IKASLEEK EUROPAR IZATEAREN KONTZIENTZIA SENDOTZEKO

Bruselako burokrazia, korapilatsua, motela eta garestia da, hainbaten ustez.



Iturria: www.europarl.europe.eu

2005ean, Frantziak eta Holandak, EBko Konstituzioaren bozketan, ezetz





❑ Errumania eta Bulgaria Europar Batasuneko kide 2007an.

| 2005 | ERRUMANIA | DANIMARKA |
|---|---|---|
| Batez besteko soldata | 200 € | 2.305 € |
| Bizi itxaropena | 71,6 urte | 78,3 urte |
| Hirian bizi dira | %85,3 | %57,2 |
| Interneten erabilera | – | 4 ordenag. bizt. |
| Ogia | 25 zent | 1 € |

Garapenaren araberako sailkapena:
Munduko lehen 20 Estatuen artean, 13 EBkoak dira; Bulgaria 56.a da, eta Errumania, 69.a

Suitza, Europaren erdian baina EBetik kanpo

*Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz* **(300 hitz, gutxienez)**. *Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:*

- Europarrok, zerk elkartzen gaitu? Historiak, kulturak, politikak, euroak, ohiturek...?
- Sorrerako helburua: bi Mundu gerren ondoren, gune ekonomiko baketsua.
- Batasunaren abiadura: arinegi, motelegi?
- Batasunaren etorkizuna. Estatuen jarrera, boterea...?
- Turkia sartzea eztabaida gai: herri musulmanak Europan?

# GAIA EMAKUMEAK / GIZONAK

**Zertan berdintsuak eta zertan bereziak?**

Topikoak dioenez, emakumea: hiztunagoa, sentiberagoa, malguagoa...

Gizona: isilagoa, zakarragoa, bat-batekoagoa...



Iturria: www.eleo.mondragon.edu



Iturria: www.ameo.nirebloga.org

| | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|
| Lexiko aberastasuna | ☺☺☺ | ☺ |
| Ahalmen espaziala | ☹ | ☺☺☺ |
| Aldi berean hainbat zereginetan jarduteko gaitasuna | ☺☺☺ | ☹ |
| Informazioa biltzeko eta sailkatzeko trebetasuna | ☺☺ | ☺☺☺ |

NESKATILAREN ADIMENAREN GARAPENA, AZKARRAGOA: **15** URTE BETE ARTE, BI URTEKO ALDEA MUTILARI

XX. mendean sexu-berdintasuna aldarrikatzen zen. 1990etik aurrera neurologoak bereizgarriak ikertzen hasi dira

| | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|
| Helburuak | maitasuna • amatasuna • sentimenduen adierazpena | sexua • boterea • onarpen soziala |
| Zaletasunak | erosketak • txutxu-mutxuak | kirola • lagunarte zaratatsua |

Txikitatik, mutiltxoak: kolore urdina, autoak, baloia...; neskatilak: kolore arrosa, panpinak, sukaldetxoak... Berezkoa ala irakatsitakoa?

Iturria: www.bizkaia.net



*Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz* ***(300 hitz, gutxienez)****.*
*Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:*

- Nolako bereizketa? Genetikoa, biologikoa, berezkoa... Historiak, gizarteak, ohiturek eragindakoa?
- Beste sexua: zer gustatzen zaigu? Zer ez? Eta geurean, zer?
- Gaur egun gizonek eta emakumeek antzeko zereginak? Jokabideak?
- Orain arteko ereduak. Feminismoa. Joera berriak...
- Sexuen arteko harremana: zer hobetu eta zelan?